

# LILI ETA BOK

*Narratiba, 94*

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.conlicencia.com](http://www.conlicencia.com); 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

*1. argitalpena: 2015eko abenduan*

Lehen irakurketa:

Inazio Mujika

Azaleko azgazkia:

Aitor Arana

Maketazioa:

Erein

© Ramon Saizarbitoria

© EREIN. Donostia 2015

ISBN: 978-84-9746-941-8

L. G.: SS-1426/2015

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: [erein@erein.eus](mailto:erein@erein.eus)

[www.erein.eus](http://www.erein.eus)

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: [itxaropena@itxaropena.net](mailto:itxaropena@itxaropena.net)

[www.itxaropena.net](http://www.itxaropena.net)

Ramon Saizarbitoria

# LILI ETA BIOK

Ispilu aurrean, hortzak itxita, oien azterketan diharduen gizonak ezin izaten du ordu asko segidan lo egin. Horregatik, nahiz eta legezko zortzi orduak eta dezente gehiago ohean etzanda eman, asegabeko lo irrikaren menpe bizi da. Eguna telebista aurrean ematen du, erdi lo, katerik kate, iragarkiei ihesi, arreta handirik gabe jarraitzen dituen solas saioen bila. Irakurri ere etenka egin ohi du, saltoka, inguratzen duten liburu piletako bat edo batean mokoka, bat hartu eta bestea utzi, luzaroan kontzentratzerik lortzen ez duela eta bat bera ere bukatu gabe sekula. Noizbehinka, liburu pilak aldatzeari ekiten dio, ongi hornitutako liburutegitik, irizpide argirik gabe, berriak ateraz, sartu ere hola eta hola egiten baititu, besterik gabe, tarte hutsak betez, aspaldi galdu du garai batean zuen sailkapen ordena. Liburu pillez aparte, esne kartoiek inguratzen dute, %85 kakaodun Lindt txokolate azalek, hainbat barrengotakoek, eta Bretxako Lidl-en aurkitzen dituen hostorezko palmeratxo industrialek, zeinaz ia soilik eta etengabe elikatzen den, salatik atera gabe gainera, ez baita modurik hoberena kolesterolari maila egokian eusteko. Hala adierazi zion sendagileak azkeneko ikustaldian. Lantzean behin, gutxitan, sardina edo atun lataren bat jan ohi du, mikrouhin labean desizoztutako ogiaz, arrakastarik gabeko saio frankoren ondoren, itxuroso geratzeko moduan egitea lortu baitu. Nahiz eta bizimodu sedentario hori daraman –ikusitako gabe begiratzen dituen amerikar telefilmeetan elastikotan ageri diren

pertsonaia koipetsu pizzajale horienaren antzekoa–, urrun dago gizona egotetik. Alderantziz, pisu gutxi du bere altuera kontuan hartuta, eta bere ustez, genetika kontuez aparte, nozitzen duen gaitz suntsitzailearen ondorio da.

Bestalde, apenas jantzirik aldatzen duen, erdi etzanda eda-teagatik esne-turrustaren bat paparretik behera erori zaiolako ez bada. Bere miserian olgatzea atsegin du, bere burua doilortzea, zikintasunez eta zabarkeriaz inguratuta. Kontzienteki egiten du, azken muturreraino ia, eta batzuetan barrea eragiten dio tema horrek jantzi-gelako ispiluan bere burua goitik behera dakusanean, galtzen eskuineko zangoa jasota, pixaren poltsa agerian gera dadin. Batzuetan, nabarmena egiten zaion kiratsari dagokionez, ezin esan erakartzen duenik, baina, neurri batean, ez du barruan gogaitarazten ere. Nahi luke jakin gainerakoengan nolako eragina izango lukeen, baina ez da arriskatzen. Ez du sekula aterik irekitzen, jotzen duten aldi bakanetan –arestian gertatu da; antza denez, oker zebilen pizza-banatzaille batekin hain zuzen–, nahiz eta urdurigarria gertatzen zaion eta jota geratzen den arnasari eutsiz egon beharraz, bisitari gogaikarriak bizi seinalerik sumatu ez dezan, krimenaren eszenatokian atzemana izateko arriskuan dagoen kriminala bailitzan. Bisitari asko saiatuak eta tematiak izaten dira, beharbada telebistaren soinua entzun dutelako, nahiz eta gizonak lehen txirrina entzun orduko itzaltzen duen, eta joka jarraitzen dute, etengabe eta luze, ukabilka ere bai zenbaitetan. Halakoetan, etsi gabe joka jarraitzen dute-nean, isil-gordean ate ondora hurbiltzera ausartzen da, eta beste aldean zelatan sentitzen ditu, bera bezala erne, txirrin-joaldi sail biren tartean pipia jaten ari den tarimaren kurrinkari, hozkailu zaharraren motor burrunbari eta etxeko hainbat hots berez-kori, eta lana alferrik egin behar izanaren frustrazioa eta errabia sumatzen die, batzuek adierazi ere egiten dutena, zitalki oso, hitz

zantarrak erabiliz. Aldiren batean, ausartu izan da begia behatxulora gerturatzeraz, bisitari gogaikarriaren figura gutxitua ur tanta batean bezala islatua ikusteko, beste aldean, bestearen begia bereari itsatsia aurkitzeko beldurra gainditu behar izaten badu ere. Postariak izan ohi dira, mezulariak gero eta sarriago, kontagailuen irakurketaren arduradunak –arestian bezala, pizza-banatzaille galdutakoren bat–, Jehovaharen lekuko bikoiteak gero eta gutxiago eta, gutxiagotan oraindik, auzokoren bat, hauek badakitelako alferrikako lana dela, eta jakinaren gainean dago, hala esan baitiote, idazten ari dela pentsatzen dutela eta ez zaiola gustatzen eragotzi dezaten; Faustino Iturbe idazlea baita, edo idazlea izan da, behintzat. Badira bisitari gogaikarriak –joan berri den pizza-banatzaillea bezalakoak–, behingoz etsi aurretik, atea ostikoz jotzen dutenak, eta kasu horietan, bereziki egoskor direnekin alegia, gizona damu izaten da lehen txirrinaldiarekin ireki ez duelako eta etxean egoteko jantzi zaharkituekin eta bere kirats guztia dariola irteteko bultzada sentitzen du, setoso gogaikarriari oihukatzen joan dadila pikutara eta utz diezaiola bakean hiltzen.

Gauz beilan jasaten dituen orduak ez zaizkio egunekoak baino zailagoak egiten, neurri handi batean, gautarrentzako irratsaioei esker, eta arazo existentzialak konpartitzeko deitzen duten entzuleen aitopenetan oinarritzen direnei esker bereziki. Bart entzun dituen adierazpenen artean interesgarriena, besorik gabeko gizon batengatik emazteak abandonatu duen senar nahigabetu batena izan da. Ezin omen zuen onartu. Bere oina-zea eta etsipena hizkera neurritsuz adierazten zuen, baretsu, emaztearekiko ezinikusirik erakutsi gabe, ezta gorrotorik ere haren maitalearentzat. Errespetua erakusten zion emaztearen maitalari, nahiz eta agerikoa zen abandonatua izanak beste mintzen zuela emazteak besorik gabeko gizon bat nahiago izanak,

eta asko azpimarratzen zuen, bere irudiko, minusbaliatutako pertsonak –kalifikatzaile politikoki zuzen hori erabiltzen zuen– beste edonoren eskubideak zituztela, ukatu gabe ezin zuela ulertu nolaz bere emaztea, zeinaz maitemindurik jarraitzen zuen, besorik gabeko gizon baten besoetan egon zitekeen, nolabait esateko. Gizon sentibera iruditu zaio, eta hainbeste identifikatu da haren frustrazio mingarriarekin, gau erdia eman baitu besorik gabeko norbait besarkatzea nola izan behar duen irudikatu nahian.

Inoiz, gaixotasunaren beraren edo jasaten dituen tratamendu gogorren albo ondorioen eraginez, aldigaiztoren batek jota erori, kolpe txar bat hartu eta lurrean etzanda kiratsa dariola aurkitu dezaten beldurrez, tarteka dutxatu eta arropaz aldatu ohi da, eta baita, elikagaiak ahituta kalera atera beharra izaten duelako, Lidl-eko hostorezko palmeratxorik gabe geratzen denean batez ere, etxetik Bretxako azokara bidean, jende ezagunarekin topo egiteko arriskua dezente handia baita. Egia da, inoiz, euria gogor ari duela profitatuz, menturatu izan dela, etxean egoteko arroparen gainetik, ia orkatiletarainoko gabardina –duela urte batzuetako modakoa– jantzita ateratzen, eta, esan beharrik ez, baldintza horietan, norbaitekin topo egin, geratu beharra gertatu eta igarriko ote dion beldurrez, bostehun metro inguruko ibilaldia abentura kezkarria baina, bide batez, kilikagarria gertatu zaiola, eta akitua itzuli dela etxera.

Gaur, atzazalak moztu, bizarra kendu, dutxatu eta hortzak garbitzea erabaki du, ordena horretan, hamarretan hitzordua duelako psikiararekin, Antigua auzoan, Ondarretatik gertu daukan kontsultan. Portuondo psikiatrak aldiari behin deitzen dio nola dagoen jakiteko, zeharka beti, alegia, galdaketa psikiatriko benetako bat saihestuz. Besterik gabe, egungo gertaerez hitz egin ohi dio, krisi ekonomikoari buruz, ustelkeria politikoari

buruz, ziklogenesi lehergarriaz, atez ateko zabor bilketaz, inoiz ere dibertigarriak ez diren gaiez, nolana ere, baina, mundu problematiko baten testuinguruan kokatuz, bere gaixotasunari garrantzia kentzeko asmoz iruditzen zaio egiten duela. Profesional argia da, eta jantzia, jendeari buruz iritzi onegirik izan gabe ere, giza miseriaren aurrean jarrera ulerkor eta atsegina duena. Gizona ez da bere kontsultara oso sarritan azaltzen, eta, salbuespenak salbuespen, Diazepan errezeta diezaion saiatzen da, besterik gabe. Kontsumitzaile handia ez den arren, atsegin du erreserba dezente bat eskura izatea, eta lapurtxori batek bezala pilatzen ditu pilulak, helburu zehatzik gabe, berez alferrik, bai baitaki, beharra gertatuz gero, Portuondo psikiatrak egiteko guztia egingo lukeela mundu, haren hitzetan esateko, zoro honetatik irteteko bidea errazteko. Hitza emana dio.

Edozelan ere, oso da liberala, edo eskuzabala edo oparoa, errezetak ematen. Gizonak apenas eskatu beharrik izaten dituen, hark eskaintzen baitizkio. “Ba al daukazu Diazepanik? Pasa zaitetz kontsultatik goiz erdi aldera, eta egingo dizkizut errezeta batzuk”, esaten dio lantzean behin; baliteke bereziki larri nabari duelako izatea, baina batez ere, etxetik ateratzeko esango luke, bere izaera bakarzalea ezagututa, isolatuko den beldur delako, eta zer nolako itxura duen ikusteko ere bai, hori ere egiten baitio, begiratu, bere psikiatra-begirada zorrotzez, edozertaz hitz egiten ari diren bitartean, alegia, krisiaz edo hauteskundeez edo planetaren berotzeaz edo kexaka mundua zoratuta, zeharo zoratuta, dagoelako. Hori maiz errepikatzen du: “Mundua erabat zoratuta dago, Faustino”. Gizonak pentsatzen du errezetatzen dion Diazepanaren konturik ez eramanda ere, den azkarrarekin eta zorrotzarekin, ohartuta egon behar duela lasaigarriak pilatzeko duen joera horretaz, baina, hala eta guztiz ere, ezin eutsi dio gehiago eskatzera joateko tentaldiari, zerbaitegatik, oraingoa



Lidl-eko palmeratxorik gabe geratu delako, etxetik irtetera behartuta dagoela profitatuz.

Hortz oiak zurixkak nabari ditu eta, oker ez badago, amak anemiarekin lotzen zuen hori. Begiko zuria, berriz, nabarmen du horixka, eta mundu guztiak daki gibleko gaitzei loturik dagoela kolore hori.

Jantziei dagokionez, garbitzekoa pilatzen zaiolako eta inguruetan, berak dakienez behintzat, lisaketa zerbitzurik ez dagoelako, gero eta antigoalekoagoak erabiltzera behartuta ari da bere burua ikusten. Jantzi onak dira, onenetakoak ere bai, hain zuzen, erabili gabe geratzen joan zaizkionak oso jantziak direlako, dotoreegiak edo formalegiak, eta horregatik, ez hain egoikiak ere egun arrunt batean Bretxako azokara joateko. Lepo zabal eta zuzena eta eskumutur bikoitza duten alkandora ingelesez kasua da, adibidez, oso gaizki ematen baitute gorbatarik eta jakarik gabe. Baina ez du besterik, eta, halabeharrez, diskretuena jantzen du gorbata eta mahuka-bikien osagarriekin. Gero, marra diplomatikodun traje gris baten jaka ateratzen du, urteetan zintzilik egon den bere zorrotik.

Atartean, gorputz osoko ispiluak jatetxe zaharkitu bateko *maitre* itxura duela dioenez –jaka luzeegia da, eta, egungo arautentzat, zabalegiak galtzak–, ia orkatiletaraino iristen zaion gabardinarekin estaltzea erabakitzen du, nahiz eta irratiko eguraldiaren berriemaileak tregoa egun bat iragarri eta eguzkiak argituko duela esan duen.

Bebarrutik atera bezain laster, Saroberekin aurrez aurre topo egiteko zorte txarra izan du. Hura beti bezain bikain eta dotore. Urteak ikusi gabe. Ezinbesteko diosala, hotz xamarra hala ere, garai batekoak zeinen beroak izaten ziren kontuan izanda.

Haiek besarkadak. “Hara, Faustino Iturbe, aspaldikoa”. Ea nora doan galdetzen dio, eta, psikiatrarengana doala ez esatearren, “Ondarretara” dio, zehaztasun gehiago eman gabe. “Gerturatuko zaitut”. Autoa kale kantoian bertan aparkatuta omen du, eta eramateko proposamena egiten dio harantz doalako, eta bide batez esaten dio hitz egiteko profitatu dezaketela, beti deitzekotan baitzegoen gai bat azaltzeko.

Nola doakien galdetzen diote elkarri. Berez, Sarobek hitz egiten du, Faustino Iturbek bizirik dagoela baino ez baitu erantzuten besteak ea nola dagoen galdetzen dionean. Badaki Saroberi ongi doakiola argazkilari lanagatik sarritan azaldu delako paperetan sari-jasotzen, eta mesfidati da berarekin hitz egiteko izan dezakeen interesaren aurrean. Kontua da garai batean, beste hirugarren batekin, gerrari buruzko dokumental bat egiteko asmoari ekin ziotela. Faustino Iturbe bera zen gidoilaria eta lehen materiala biltzeko dirua lortu zuena. Azkenean, lana burutu gabe utzi zuten, ordea, eta horren ondorioz, beren harremana kalte-tua gertatu zen, proiektua abandonatzeko erabakia Faustino Iturberena izan zelako, beste bien gogoaren kontra, eta, egitasmoa ekonomikoki berak sustatzen zuenez, ez zuten onartzea beste erremediorik izan. Lekuko zuzenei eginiko elkarrizketetan oinarritzen zen lana, baina, dozena batzuk egin ondoren, iruditu zitzaion interesik gabeak zirela eta ez zutela ezertarako biderik ematen. Hori izan zen lana geldiarazteko argudiatu zuena –eta egia zen: salbuespenak salbuespen, lekukoen adierazpenek ez zuten tutik ere balio–, baina jakin badaki haiek pentsatu zutela egitasmoa bertan behera uzteko arrazoia beste bat izan zuela berak, nahiz eta, begirunez, ez ziren ausartu esplizituki azaltzera.

Azkenean, itzulinguru dezentetxoren ondoren, jada Antiguako tunela gurutzatzen ari direla, Sarobek zergatik dagoen beti deitzeko azaltzen dio, eta motiboa da baimena eskatu nahi diola

amaitu gabe utzi zuten dokumental hartako elkarrizketa batzuk erabiltzeko Memoria Historikoari buruz agindu dioten beste lan batean. Ezin horrelakorik ukatu, eta ez dio ukatzen. Gorrian harapatzen duen lehen semaforoan uzteko eskatzen dio, eta, doi Zumalakarregi eta Satrustegi bidegurutzean jaistera doala, Sarobek ziurtatzen dio, edozein modutan ere, ohartaraziko duela alde zuzenetik bere lanerako erabiliko dituen zatiez.

Egiaz, gaiak ez du asko kezkatzen, konbentziturata baitago Sarobek ez duela erabiliko zati hura, sagu hortzak zituen elkarrizketatu batek bere aitona Faustinoren adorea zalantzan jartzen zuena, baina ez dio onik egiten azken finean beren arteko harremana hondatu zuen gai hura gogora ekartzeak.

Pasealekuan zehar doala, beste edozertaz pentsatzen saiatzen da.

Eszena, Ondarretako hondartzan: hareatza eta pasealekua hutsik ia, laino zuri leun batez inguratuak oraino, eta emakume heldu bat igeritako beltzez jantzia ur ertzarako bidean. Pasealekuko barandillan bermatua, gizon bat, artean gaztea, arropa gehiegirikin egiten duen girorako, gabardina luzea gerrian lotua eta fullarra lepoan, gorputzez sendoa izan arren malgutasun dotorez mugitzen den emakume horren edertasun orekatsuen mirresle. Urak, emakumeak arestian kendu duen albornozaren urdin argi berekoak, hotza dirudi. Eta hala dago, hamazazpi gradu, irratia iragarri duenez.

Ur ertzerantz iritsi denean, emakumeak burua makurtu eta txanoa jantzi du. Igerilekurako txano soil beltza. Ura izter erdira iritsi zaion arte egin du aurrera, eta besoak eta lepoa busti ditu orduan. Gero, aurrerago jarraitu du, uraren hotzak zirrararik egiten dionik erakutsi gabe. Segundo batzuk ur azpian desagertu,

eta zuzen jarraitzen du irla aldera, besakada batzuk emanez, hainbat, dozena bat baino gehiago, crawl erara, eta hurrena eskuinera, badiaren erdigune aldera erritmo lasai eta konstantean. Ez dago olaturik ia.

Gizona zurezko ohol estuzko banku zuri horietako batean esertzen da, emakumeak alboz urdin argia, palmazko kapazu baten barruan, hondarretan, utzitako parean. Saroberekin topo egin eta autoz ekartzen tematu delako, denbora soberan du orain. Ordu-tegi bati lotu beharrik ez duenetik, zaila zaio egin-kizun pertsonaletarako, hortzak garbitzeko, dutxatzeko edo janzteko behar duen denbora neurtzea, eta are zailago norabait joateko behar duena aurreikusteko, eta horregatik, eta puntu-puntu iristeko izaten duen premia setatiarengatik, goizegi iristen da gehienetan tokietara. Zahardadearen ezaugarri goiztiarregia, gaixotasunari loturikoa pentsatzen du izango dela, gogoan duenez, bere garaian, hitzorduetara denbora ondo neurtuta iristen baitzen doi-doi, ilea dutxan busti berria.

Eguzkia gozoa da betazaletan, eta orain poztu egiten da irten izanaz.

Badira eszenak, esperientzia solteak, istorio batean parte hartzea eskatzen dutenak. Behin eta berriz gogora etortzen direnak izaten dira, baina eszena errepikatu guztiek ez dute istorio bat eskatzen. Esaterako, barnetegiko patioan ingesatu zen arratsaldekoa. Patioa inguratzen zuten harrizko hormak deskriba ditzake, XIX. mendeko asilo etxe bat gogorarazten dutenak; letrina saila, zeinaren aurrean ilaran jarriko zen, artean ez baze-kien ere letrinak zirenik; sarrerako ate gaineko brontzezko kanpai txikia, ondorengo hilabeteetan bizimoldearen erritmo hertsia markatuko zuena. Auskalo zergatik, kanpai hori izan zen zantzu txarrenak iradoki zizkiona. “Ongi portatu eta ikasi” dio arestian alargundutako amak, penatuta semea, bere seme

bakarra, kolegio horretan utzi beharraz, baina sinetsita ongi egiten duela konfesorearen aholkuari jarraituz, ikusarazi baitzion merezi duela sakrifizio materialak –hura gutxi bailitzan, kolegioa oso garestia baita–, mutikoari, etxean gizona falta dela, ongi etorriko zaiolako erlijiosoen diziplina erregimena.

Kanpaia beraz. Noiz edo noiz, bazkalondoren batean, auzartu izan da eszena hori saio modura narratzen –aukeratzea zuzkeen gogorragorik: Ermano Zikutak sudurra hautsi zionekoa, Ermano Bernaberen musuen tabako kiratsak eragiten zion gogoralea–, besterik gabe neurtzeko merezi ote zuen esperientzia horren inguruan istorio bat eraikitzerik. Ez du inoiz egin, uste baitu entzuleei hunkigarria gertatzen zitzaiena zera zela, berak pertsonalki nozitutako egoera izatea eta gogora ekarri izana hainbat narratzaile bikainek maisuki kontatu izan dituzten barneategietako esperientziak, zinemaren eta literaturaren eraginez pertsona ororen *background* sentimentalean txertaturik daudenak. Berak bere haragitan bizitu du, hori da alde bakarra; ezingo luke ezer baliozkorik gehitu beste batzuek idatzitakoari, eta barrua arindu nahiak besterik gabe edo mendeku egarri hutsak ez diote idazten jartzeko behar duen indarririk ematen. Eskolakoa gai argia da, galdera bat bera ere iradokitzen ez diona. Aitzitik, gerra da etengabe nahasten dena bere obran.

Bainularia erritmo patxadatsu baina etengabez ari da urertzaren paraleloan, Tenis alderantz. Hondartzaren eremu horretan, ezkerrean, harri pila dago, udaro bistan ageri dena, nahiz eta Udalak kentzeko ahaleginak egin. Asko, bertan zegoen kartzelaren zimentarriak dira, non bere aitona gudari heroikoa preso egon zen gerraren amaiera aldera. Bada argazki bat oso serio ageri dena, kartzela aurrean, posean, libre utzi zuten egunean, eta deigarri egiten da zeinen lasaia duen jantzia; guztiz dotorea, bestalde. Begi-bistakoa da trajerik hoberena helarazi ziotela irteera

iragarri ziotenean. Gutxi gorabehera, hamabost hilabete lehenago, paraje berean –alegia, pasealekuko punturen batean, gizona eserita dagoen lekutik gertu– ateratako beste argazki batean, hamar urte gutxiago dituela dirudi eta hamar kilo gehiago, nahiz eta gihartsu ageri den. Argazkia bitxia da: hogeita hamarretan ibiliko da aitona, eta tenislariz jantzia dago –alkandora eta galtza luze zuriak, eta jertse lepo mokoduna mendel ziur asko gorri-urdinez inguratua–, eta bere atzean, hiru gazte, txapela buruan, alkandora ilunez jantziak eta uhaleria soinean ageri dira, beroietako batek pasadizoan doazen beste batzuei paper bat eskaintzen dien momentuan. Beti pentsatu izan du argazki hori 1934ko irailaren 7koa dela zeren, aitonaren trofeoan artean, kopa bat bai baitzegoen data hori grabatuta zeukana, eta, egun horretan garaiko prentsan ageri denez, sozialista- eta komunista-talde handi batek eraso egin zion Ondarretako hondartzan propaganda partitzen ari zen falangistez osatutako beste talde bati. Horrela balitz, argazkian bere aitonaren atzean ageri diren indibiduo haiek eskaintzen ari ziren papera zera izan zitekeen, hala zioen famatu hura: “*¡Navegantes! Cuando los pueblos de España estuvieron unidos, los almirantes vascos, en barcos de España dominaron el mar. ¡Navegantes vascos! La gloria de España es nuestra gloria*”. Testua Jose Manuel Aizpurua arkitekto donostiarrak idatziko zuen beharbada. Falangeko propaganda-burua zen, eta Klub Nautikoaren eraikin zoragarria, arrazionalismo europarraren erakusgarririk hoberenetakoa, diseinatu zuena, Joaquin Labayenekin batera, eta orain gizonak ia aurrez aurre, badiaren beste muturrean dakusana. Aizpurua ere preso egon zen kartzela horretan, hondakinak hondarretik tematsu ageri diren Ondarretakoan, baina aitonak baino zorte okerragoa izan zuen, altxamendua prestatzeko Molarekin kontaktuak eduki izana leporatu zion herri tribunal batek kondenatuta, bere

aldekoek Donostia hartu baino hiru egun lehenago, fusilatu baitzuten.

Gizonak ez dio begirik kentzen, hondoa hankaz jo ondoren, pixkanaka, ur ertzero gerturatzen ari den emakumeari. Bainujantzia gorputz osokoa du, beltza edo arras iluna, eta esango litzateke, besaburuak zuzen mantentzen baititu, zangoak erabili gabe ari dela kanporatzen, urak kontra eragiten dion indarra gainditzeko ahalegin txikienik egin behar duenik ere erakutsi gabe. Emakume mardula dela esatea ez da eufemismoa: sorbalda zabalekoa, beso eta iztermami sendokoa, gerriz ere zabala beharbada, heldutasun seinalerik nabarmenena du hori, baina gizontasun arrastorik gabe. Altua da, so ari zaion gizonaren garaiera baino zentimetroren bat gutxiago. Txanoa kendu ondoren, indarrez astintzen du burua eta alde banatara alboratzeko keinua egiten, eskua kontrako belarrira eramaten duela. Ondoren, atzera orrazten du bi eskuez ile motz eta kizkur xamarra, kolorez horail lastokara, naturala den esaten ez badaki ere. Kapazu ondoan irauten du zutik minutu erdi inguru, aurpegia eta besoak xukadera hori txiki batekin gainetik lehortzen dituela, azala igurtzi gabe alegia, ukitu leunez, gizonari erreparatu dion arte, eta so geratzen zaio momentu batean, begiak zorrotzuz, eza-gutzeko ahaleginean ari bailitzan, eta, halako batean, bizkarra ematen dio. Dekadentzia seinale bat, trapezioen tolesak gerri-rantz adierazten duen mengeltasuna. Bizkarrez, bada, bainujantziaren uhaletik libratzen ditu besoak, eta goiko partea uzten du zintzilikatzen. Modu horretan, gerritik gora biluzik, kapazu gainera makurtzen da albornoza hartzeko –gizonak ezkerreko besoa bularrari eusteko tolestua intuitu dezake–, jantzi egiten du eta zabalik utzi, bainujantzia kentzeko mugimenduak erraztearren; lan hori burutu ondoren, kuleroa jantzi eta albornozaren gerrikoa lotzen du.

Gizonari atsegin izan zaio jantzi aldaketaren operazioa nola egin duen, bizkor eta naturaltasunez, milikeriarik eta erakuskeriarik gabe.

Erdiko eskailerarantz doa orain, kapazua esku batean eta txinalak bestean, eta gizonak ondorioztatzen du inguruetan bizi behar duela, pasealekuaz bestaldeko txaleten batean behar bada. Pentsatzen baitu, hondartzatik aterata, oinetako harea kentzeko lana hartuko duela, alde hartara bideratzen da, ondotik ikusi ahal izateko moduan pausoa neurtuz, eta, doi-doi eskailera-buruaren alde banatan dauden bi faroletako lehen-dabizikora iristen denean, emakumea bestearen kontra bermatua, oinetatik harea arinki astintzeko erabili duen xukaderatxo horia kapazuan gordetzen ari da. Parera iritsitakoan, gizona gelditu egiten da pasatzen uzteko, eta emakumeak, istant batez zalantza egin ondoren, ziur asko keinua nola interpretatu ez dakielako oinez hasteko baitzegoen oraindik, esker-rak ematen dizkio eta pasealekuaz bestaldeko lorategitxo zirkularrerantz abiatzen da. Gizonak ez luke jakingo esaten zein koloretakoak dituen begiak.

Psikiatra bera da irekitzera ateratzen zaiona. Ez du erizainik. Kontsultako atea itxita dagoenez, pazienteren batekin dagoela ondorioztatzen du. Itxarongela itxitura zeharrargitsu batek babesten du, baina normalean ez da inor egoten bertan. Esperientziagatik daki. Hiri txiki batean, beharrezkoagoak dira pribatutasuna gordetzeko neurriak, gutxi edo gehiago, mundu guztia ezagutzen delako eta psikiatraren kontsultan norbait ikustetik ondorioak atera ohi direlako. Edozelan ere, ez dirudi Portuondo psikiatra presatuta dagoenik. Inoiz ere ez zaio presaka ibiltzeko itxurarik hartzen, eta gizonak irudipena du



profesional ona izatearen seinalea dela hori. Zerbait adierazte-kotan, zera adieraziko luke, gizakiari dagokion ezer, esan ohi den bezala, ez zaiola arrotza eta, berez doa, edozein egoeratan, oso ongi dakiela entzuten –berak esan ohi du: “psikiatra izan daiteke itsu, Faustino, baina inondik ere ez gor”–, eta entzuten duena interesatzen zaiolako sentsazioa helarazten du. Gizonari eroso egiten zaio berarekin hitz egitea, ez duelako hitzak aukeratzen, neurtzen, zehazten ibili beharrik. Badaki keinu huts batekin ulertuko diola, ezagunak zaizkiola bere mugak eta kontuan hartzen dituela. Ziur asko horregatik, aholku gutxi ematen dio. “Hartu hiruren bat egunero”, esaten dio Diazepanaz, eta galderaren bat ere egiten dio, gutxi, ea jateko gogorik baduen, zer moduz egiten duen lo, paseatzeko animaturik sentitzen al den. Ama batek bezala, psikiatra baten modura baino gehiago. “Nola daramazu?”, begirada gizonaren oinetara doakiola. Poltsaren gorabeheraz ari zaio noski. “Ongi”, dio gizonak, nahiz eta etxetik kanpo iruditzen zaion edozein momentutan kanila ireki zaiola eta lurrean pixa xirripa bat utziz doala. Nolabaiteko hizkera umoretsua erabiliz. “Ba al zoaz medikuarengana?”. Portuondo psikiatra medikuez ari denean, berau profesiokoa ez baltitz bezala mintzo da –“mediku horiek” esan ohi du–, eta gizonak ez daki zer erantzun. Kontsultara huts egin duela aitortzea erabakitzen du. Azkenekoan espezialistak esan ziona kontatzen dio, alegia bere gaixotasunak prebalentzia handiago duela populazio beltzaren artean zuriarenean baino. Liburu amerikarrak irakurtzen zituela aditzera eman nahiko ziolako, noski. Eta ez zuelako beste ezer esatekorik, seguruena. Iraungitze datari begiratu gabe bizitzeko gomendioa egin zion, horiek izan ziren bere hitzak, gaixotasun hilkor batek jota ez balego bezala. “Pentsa ezazu berdin-berdin hil zaitezkeela auto istripu batean”, esan zion animatu nahian.

Psikiatrari irribarre tristea loratzen zaio. “Nola diren. Ez dute angustiarik ikusi nahi”. Nekatu itxura du, eta gizonak ea zer moduz sentitzen den galdetzen dio, konturatzen bada ere bere burua, gaixo bezala, ez dagokion maila batean jartzen ari dela. “Nekatu xamar”, baieztatzen du, eta ondoren, beste askotan bezala, “mundua zoratuta dago, Faustino”.

Sarritan hitz egiten dio beste bezeroez, behar den anonimotasuna gordeaz noski. Noiz edo noiz pentsatu izan du ideiak iradokitzeko dela, istorio-zirriborroak, bere esperientzia propioak txertatzeko modua aurkitu dezan. Edo ulertarazteko, badagoela sufritzen duenik gehiago ere. Eskailera-bururaino laguntzen dio, eta kontsulta barruko giroa bera bezain erreserbatua eta isila den arren, ahotsa apaltzen du ia entzunezin bihurtzeraino, eta gizonak ezpainak irakurri behar dizkio orduan ulertzeko. Oraingoan, zelotipia patologiko kasu batez mintzo zaio, 55 urteko industria-gizona bere negozioa porrot arriskuan jartzen ari dena, behar bezala arduratu ordez, beste zereginik gabe, emaztea eta bere maitale ustezko, posible eta potentzialak kontrolatzeko lanean jartzen duelako bere arreta eta gogo guztia, eta, bide batez, detektibe agentzia ospetsuenak kontratatzen erabiltzen baitu dirua. Holakoetan, gizonak jakin nahi luke beraren kasuan, historia ireki zionean, zehazki duela zortzi urte, zein izan ote zen idatzi zuen azalpena: Hogeita hamabost urteko gizona, psikologian lizentziaduna, kontsultara paziente baten suizidioak dakarrena; errudun sentitzen da modu desegokian tratatu zuelako –antza denez depresio endogeno kasu bat zen, psikiatra batengana bideratu beharrekoa–, portaera profesionalaren kodea hautsiz harreman pertsonala mantendu zuen pazientearekin, ez sexuala baina bai zertxobait anbigua. Loezina adierazten du, nekea, interes falta, bat-bateko larritasun erasoak.

“Mundua zoratuta dago, Faustino”, errepikatu du psikiatrak despedida gisa eskua luzatuz, eta, gizonak jada eskailera tarte erdia jaitsia duela, erantsi du: “Dei egidazu nahi duzunean”, eskailera-burutik ateari eutsiz, kontsultan azaldu diren arazoei barnean eutsi nahi balie bezala, kalea inbaditu ez dezaten.

Gizonak ez luke jakingo esaten zerk daraman glorieta gurutzatzera, bere atzean lehendabizi taxi geralekua utziz, busena gero eta, ondoren, duela apenas ordu laurden egona den paseoko puntu berera itzultzera, aztarnaren bat usainduko lukeen zaturra bailitzan. Iodo eta kresala usaina datorchio. Uda urrunen gatz zaporea, bere ondoan eguzkipean etzana dagoen neskaren baten azal beltzaranduan, pasealeku ertzeko zesterek paperezko poltsa horietan saltzen zituzten patata frijituena. Ez du gogoratzeko interesik. Onartu beharra du harriduraz, harridura bizi-garriaz, iodo eta kresal usainarekin, azal zuridun bainulari helduaren nostalgia duela. Azal zuria irudikatzen du, beraz, hotzak uzkurtua, alga izpiren bat, itsasoak lehorrerantz irabiatzen dituenetakoak itsatsita. Ez da inor bainatzen ageri. Hondarretan, neska-mutil bi, aurrez aurre, hamarren bat metroko tartearrekin jarrita, zurezko palaz pilota elkarri pasatzen ari dira eta txakur batek korrika egiten du, pozez zaunkari, batengandik bestearengana pilotaren ibilbideari jarraituz ahaleginean, baina harrrapatzen saiatu gabe, jokoa eragotzi gabe alegia. Bere jabeen jokoa integratutako txakur hori ikuskizun, bigarren aldiz datorchio gogora goiz horretan bere txakur Txikiren oroimen gozua baino areago tristea. Berez amarena baitzen, horren izen arrunta jarri izanaren kulpaz ez da berea. Emea zen, Lakeland terrier arrazakoa. Goiz aldera, bigarren aldiz loa galdu duenean, desoseguaren motiboa atzeman nahian zegoela, eserita ikusi du berari so, begiak kizkur artean ezkutatua ia, muturtxo beltza distiratsu, burua alboratua zerbaitek benetan atentzioa ematen

zisionean ohi zuenez. Txakurtxo argia, azkarra eta gogorra zen, independentea eta ez oso txeratsua. Bere akatsak zituen, jakina, pertsona eta animalia guztiek bezala, eta, nahiz eta errieta egiteko motiboak ematen zituen, ez zen komeni izaten, alfonbretan pixa eginez erantzuten baitzuen. Irmo egiten zion uko berak mendi ibilaldietara edo footing egitera lagundu ziezaion nahi izaten zuenean. Ez zuen ulertzen, antza, zertara zetorren besterik gabe orduak eta orduak mendian ibiltzea edo kalean korrika aritzea, berak nahi izaten zuen bezala, eta mendiko botak edo kiroleko oinetakoak usaintzen zizkionean ohe azpian ezkutatzen zen eta ezin izaten zuen handik atera. Berak katuen atzetik korrika egin nahi izaten zuen edo pilota bota ziezaioten nekatu gabe harrapatzeko. Gainera, egiazko uretako txakurra zenez, bere senaren aginduz, inguruetan sumatzen bazuen, zela itsaso, ibai, laku edo putzu, ihes egiten zuen bertan murgiltzeko eta azalean mugitzen zen ororen atzetik zaunka egiteari utzi gabe jarraitzeko, eta arazo larriak izaten zituen ateratzea lortzeko. Zenbat aldiz ez zen goitik behera blai egin hura ateratzeko ahaleginean. Ez du sekula ulertu nola halako piztia batek, amarekin arazorik izan gabe, etxebizitza batean bizi ahal izan zuen, dakienez ez baitzen sekula kexatu. Azken aurreko aneurismaren ondorioz elbarrituta geratu zenean, arrebak bere etxean hartu zuen ama, berak txakurrarekin berdin egitekotan, ezin zituelako animaliak jasan eta amak ez zuelako onartzen familiaratik kanpo abandonatzea ekarriko zuen inolako irtenbiderik.

Pare bat urte bizi izan ziren elkarrekin, paseora atera zuen egun batean, animaliez asko zekien lagun batekin topo egin zuen arte. Lagunak –ezagunak, hobeto esanda, lagun izatera ez baitzen iristen– ahoa zabalaz zion hortzak ikusteko, airean altxatu zuen, lepotik eta buztanetik helduz, eta beste zenbait maniobraren ondoren jakinarazi zion arraza garbiko oso animalia

ederra zela. Bera kexu ageri zitzaion. Nahi zuena egiten ziola, jenio txarrekoa zela eta, batez ere, uko egiten ziola mendira laguntzea nahi izaten zuenetan eta abar, eta kokoteraino zegoela. Ezagunak jasoko zuela proposatu zion. Igerilekua zuen etxean, eta lorategia, eta baita txakurtxoarekin jolastuko ziren umeak ere. Hobeto ezin. Animaliaz libratzeko aukerak tentatu zuen. Ama hila zen ordurako, azken isuri zerebralaren ondorioz, txakurra hobeto biziko zen igerilekua, lorategia eta pilotan jolasten nekatuko ez ziren haurrak zituen etxe batean; eta kontua da, handik egun batzuetara, delako ezagun hari dei egin ziola etor zedin haren bila. Ikusi zuen azkeneko egunean, azken istantean, nagusi berriaren autoan, atzeko erretiluan izan zen, aurreko hankak oso xuxen, burua alboratuta begiratzen ziola urruntzen, betirako zenik ez zekiela. Izugarri maite zuen autoan ibiltzea.

Kontzientzia txarra egin zitzaion desagertzen ikusi zuen momentutik. Amari sekula ez zuela abandonatuko emandako hitza ez betetzeagatik baino areago –azken finean, hila baitzen eta ez zen enteratuko–, berez, gaineratik kendu zuelako. Arrebak, nahiz eta animaliei fobia dien, era oso gogorrean aurpegiratu zion abandonua –“bihozgabea zer zaren, gauza bera egingo zenukeen zeure ama propioarekin ere” esan zion–, baina ia okerrago izan zen ordutik aurrera, auzokoak, txakurrak eragiten zituen eragozpenengatik hain kexu zirenak zaunkaria zelako eta, batez ere, ibaitik etortzen zenean, uzten zituen lohi arrastoak zirela eta, beregatik interesatzen hasi zirela, eta haren paraderoaz galdezka hasi zirela etengabe, oso-oso era txeratsuan gogoratzen zutela nonbait. “Zer da zure txakurtxo alai eta politaz?”, galdetzen zioten bizi-lagunen bileretan, eta hainbeste sinetsarazi zioten haren falta sumatzen zutela, are eta errudunago sentitu baitzen.

Pozbide zuen pentsatzea hobe zuela bizimodu berria, harik eta, egun batean, jaso zuen lagunarekin topo egin eta hila zela

jakinarazi zion arte. Zehatzago esateko, akabatu egin zutela. Esan zion, oso zaunkaria zenez, auzokoren batek aspertuta pozoitu egin zuela. “Herrietan ez dira txantxetan ibiltzen”, esan zion. Begien bistakoa egin zitzaion tipo hark lotuta eduki zuela patata sailen batean, eta horregatik egiten zuela zaunka gaixoak, berarengana nahi zuelako itzuli, bere benetako etxera, txakurrak jabeek eskaini diezaieketen ongizate materiala kontuan hartu gabe leialak direlako, eta ziur zegoen, betiko zihoala jakitera, ez zela indibiduo haren autora igoko. Ez zeukan, ordea, tipo hura larderiatuz lasaitzeko modurik, txakur bat zoriontsu bizi dadin baldintza guztiak beteko zituen etxea, igerilekua, lorategia, ume jostalariak eta beste eskaini bazizkion ere, txakurraren heriotza jakinarazteko lanik ere hartu ez zuelako; berak bere aldetik, ez baitzuen inoiz gutxieneko interesik erakutsi Txiki bisitatzeko edo jakiteko ea zer nolako bizimodua zeraman, eta gainera, bera izan zen izaera zaila zuela eta lehendabizi kexatu zena. Beraz, ezin zion bere errurik inori egotzi. Animaliak bere gauzak zituen, uretara ihes egitea eta mugitzen zen orori zaunka egitea bereziki, baina geneetan itsatsitako zerbait zen: azken finean, Lakeland bat zen eta bere senari obeditzen zion. Patuak bere babespean jarri zenez, onartu beharko zukeen. Eskuzabalagoa izan balitz hain hertsia izan ordez, eta bere alfonbrei eta errutinei hain atxikia, toleranteagoa azken finean, beste modu batera portatuko zen. Istoria horretan, bere portaeraren ondorio zuzenak baino harantzago –txakur baten akabera, berez, gauza penagarria izan arren, ez denez esajeratu behar–, zerak ematen dio benetan min, berekoikeriaren eta miseria afektiboaren adierazle garbia dela eta arrebak arrazoia zuela onartu beharrak aurpegiratu zionean berdin egingo zukeela amarekin, haren kargu egin behar izan balu.

Horregatik, inoiz edo behin pasatu izan zitzaion burutik errua arintzeko txakur bat hartzea, zehatzago esateko, beste

txakur eme bat zeinari Txiki izena jarriko zion, baina erantzukizun horren karga hartzeko asmoak ez zuen asko irauten –zorionez, gerora iragarriko zioten bizi itxaropena kontuan hartuz–, alde batetik, ezintasun moralaz konbentzituta eta, bestetik, sakrifizioaren balio erredentorean federik aski ez zuelako. Beste txakur bat izatera, norbaiti laga nahian ibiliko litzateke, eta, gainera, jolasean ikusiko balu ere, orain palaz ari den bikoteko kide batengandik bestearengana, nekaezin, gogo alaitsu zaunkari dakusana bezala, berdin-berdin oroitu litzateke Lakeland abandonatuaz, eta harekin bizi izan zituen momentuez, duela istant bat Cristina Enea parkeko arratsalde hura zehazki gogoratu duen bezala, hantxe Maite, bere buruaz beste egin baino egun gutxi batzuk lehenago, doinu axolagabez ia alaiki esaten: “Txiki: egunen batean leihotik behera botako dut nire burua”. Ohitura hori baitzuen, txakurrari ozen hitz egitekoa, berak entzun ziezaion. Berak bazekien Donostiako eraikuntzarik altuenetako batean bizi zela, baina ez zein solairutan, eta galdetzekotan egon zen, txiste bat egiteko, “ziurta zaitez hanka bat bakarrik ez duzula hausten” edo estiloko zerbait, kokoteraino baitzegoen suizidioaren ideiarekin fantasia egiten entzuteaz. Noski, nahiz eta psikologo txarra izan, bazekien hamar suizidatik bederatzik argi eta garbi ematen dutela asmoaren berri, eta hamargarrenak adierazi egiten duela, baina konbentzituta zegoenez hippy estiloko gona luzeak erabiltzen zituen neska adats luze haren ideia suizidak itxura estetiko hutsa zirela, ez zituen seriotan hartzen. Bere lagun eta lankide Anak esaten zuen bezala, estatistikoki zenbat diren ez jakin arren, asko behar dira izan beren buruaz beste egiteko asmoa azaldu bai, baina aurrerago joateko pausorik ematen ez dutenak. Ziur asko egia izan arren, horrek ordea ez dio errurik arintzen: Maite suizidarekin izan zuen portaera, beste askoren arteko momentu bat gehiago da bere bizitzan,

zirkunstantziek eskatzen zioten mailan egoten jakin ez zuena, beste kapitulu etsigarri bat oroitzeak oinazetik eragiten ez diona jada, baina hor dirauena, amaren kargu-hartze urrun bat bezala, ahots insistente bat, nekosoa.

Hark hogei urte, eta berak apenas hamar gehiago zituela ezagutu zuen Anarekin eta fakultateko beste hiru lagun psikologorekin osatutako kontsultan. Lehendabiziko bezeroetako bat izan zen eta azkenetakoa, suizidioaren berri gertatu zena jakin ostean, profesioa utzi baitzuen. Psikologia estudiatu bazuen, izan zen, idazteaz aparte –profesionalki egitea burutik pasatu ere egiten ez zitzaiona–, ez zuelako bokazio argirik, eta, inertzia hutsez, Anaren eta Filosofia eta Letren fakultateko gainerako hiru lagunei jarraituz egin zuen. Beraiekin egotearren. Beroiek animatuta baita ere, Anak bereziki, erabat amatiar beraren etorkizunagatik kezkatzen baitzen, kabinete baten sorreran hartu zuen parte, haur eta gazte problematikoen zaintzan espezializatuko zena, ustez, arloa arrisku gutxieneko kasuistikak osatzen zuelako. Fakultatean jasotako ezagutza mailarekin, eta praktika kaxkar batzuekin, ez zen profesioan aritzeko gai sentitzen, horregatik, zailenak iruditzen zitzaizkion kasuak beste batzuegana bideratzen zituen, eta gainerakoetan, erremediorik gabe hartzera behartuta zegoenekin, zentzu komuna aplikatzen zuen, ahalik eta gutxien esku hartuz.

Maite suizidaren kargu egin bazen, izan zen kabinetearen egoera ekonomikoa aztertzeke lankideen bilera batean produktibitate exkaxaz kexu azaldu zitzaizkiolako. Argi eta garbi aurpegiratu zioten lanari ihes egiten ziola, eta ez zuen beste erremediorik izan hurrengo bezeroa onartzea baino. Maite zen bezero hori. Lehen begiratuan, neska konplexuduna iruditu zitzaion. Neska polita esaten zaien horietakoa zen, fina, azal zurikoa, ezpainak ere zurbilak zituen, anemiak joa balego bezala,



adats luze beltza, hippy estilokoa hau ere, gonaren antzera. Aitak gutxietsita sentitzen zen, eta kexu izaten zen, aurreko ezkontza baten fruitu, beste alaba bat neurritz kanpo maite zuelako. Aitak adoratzeko zuen alaba nagusi horren argazkia diru-zorroan eramaten omen zuen eta mundu guztiari erakusten zion; haren edertasuna, ontasuna eta argitasuna etengabe laudatzen zituen, eta berarentzat, berriz, ez omen zuen hitz on bakar bat ere izaten; zoriondu ere ez omen zuen egin behin Kutxak umeentzat eraturako poesia-lehiaketa irabazi zuenean txakur bati dedikatutako poema batekin. Aitortzen zuen bere ahizpaordea Eskandinaviako emakume ederrenen parekoa zela, garaieragatik, begi berde ikusgarriak eta ile lastokara zituelako. Ezaugarri horiek aitak izugarri miresten zuen amonarengandik jasoak omen ziren, eta horregatik, hura bezalakoxea zelako uste zuen maite zuela neurririk gabe, maite zuen bezala. Kexu zen bere ahizpaorde eder bezain gaizto horrek bizitza hondatzen ziolako, eta horren adibide ugari ematen zion, hala nola, uko egiten ziola katu zahar bat etxetik kentzeari, nahiz eta berari, suizidari alegia, kalte izugarria egiten zion, alergia ziolako ileari, eta gurasoek erabaki zutenean ez zegoela era hartan bizitzerik, sudurra eta begiak handi-handi eginda zituelako beti, nahiago izan zuen bere katu zaharrarekin amonaren etxera aldatu. Suizidak esaten zenez, aitarentzat egundoko galera izan omen zen, eta berari egozti zion kulpak, ezin zuelako onartu amona miretsia berbera zen alaba maitatuak katu batengatik aita abandonatzea.

Psikologo gazteak eskarmentu handirik ez zuenez, zaila egiten zitzaion diagnosi-taulak ezartzea. Barrena hustu zezan hitz egiten uzten zion pazienteari; bera, berriz, ahalik eta gutxien eginenez eta pazientzia handiz entzutera mugatzen zen, paziente guztiekin egiten zuen bezala bestalde, horrela, ahalik eta gutxien erratzearren. Ez daki nola, behin, bereziki triste ikusi zuelako

agian, bere txakurraz hitz egiteko ahuldadea izan zuen, eta hain irrigarria iruditu zitzaizkion kirol oinetakoak usaindu bezain pronto ohe azpian ezkutatzen zenekoa eta gainerako desbenturak, animatu egin baitzen, bakarriketari komiko bat bailitzan, harekin izandako gorabeherak kontatzera. Kontua da ezagutu nahi izan zuela txakurra, eta berak, modu erabat ari-  
nean, kalean elkartzea ez zelako batere profesionala, pentsatu zuen haren autoestimua indartzen lagunduko ziola bere kide-  
kotzat tratatzen zuela ikusteak. Azken finean, ez zuen aurrera-  
pen handirik lortu kabineteko testuinguru profesionalean ustez psikologo moduan tratatuz.

Lehen enkontruaren ondoren, beste batzuk izan zituzten. Jarleku batean esertzen ziren eta neskak bere arazo existentzia-  
lez hitz egiten zion, kabinetean egiten zuen modu bertsuan, munduaren desegokitasunaz, bizitzaren zentzugabekeriaz, eta bera, ahal zuen moduan, kontrakoaz konbentzitzen saiatzen zen, argudio handirik gabe noski, momentua iristen zen arte, eta hor zegoen kontsultarekin diferentziarik handiena, ia soilik txakurrari hitz egiten hasten zitzaioela, animaliairentzat egokitu-  
tako diskurtsoa osatu nahi bailuen, esaldi laburrak erabiliz eta galdera bertsuak egiten zizkion beti: “Bizitza kaka zaharra dela, baietz?”, askotan, eta ondorengo isiltasunak arrazoia ematen ziola zirudien. “Ikusten?”, ondorioztatzen zuen gero, berarengana itzuliz.

Psikologo gaztea ohartzen zen Maiteren alderdi nabar-  
menki melankoliakoaz, baina, batez ere, errabia handia nabari zion, munduaren kontra, eta gehiago emakumeen kontra gi-  
zonezkoen kontra baino, eta batez ere ahizpa nagusia –ahiz-  
paordea berez– eta amona zituen gorroto, altuak, begi berdeak eta horailak zirelako biak, biek elkar maite zutelako eta bera maitasun horretatik egotzia sentitzen zelako. Errabia izan zen

psikologo gaztea nahasarazi zuena. Heriotzaz mintzatzen entzuten zuenean, “hoberena, joatea” –laket zituen eufemismoak–, “alde egiteko gogoia ematen dit”, iruditzen zitzaion bera bezala errabiak hartutako norbait arriskugarriago zela gainerakoentzat bere buruarentzat baino, beraz, errazago ikusten zuen ahizpa akabatzen bere buruaz beste egiten baino, eta ez zuen besterik pentsatu txakurrari “Txiki, leihotik behera botako naiz” edo “Hauetako egunen batean, leihotik behera botako naiz” esan zion egunean. Aipatu denez, Cristina Enean izan zen. Hirurak zeuden jarleku batean eserita, txakurra, berarekin txintxoago izaten baitzen erdian zutela, eta berak ez zion deus erantzun, ezta mesedez tontokeriarik ez esateko ere, asmo hori azaldu zuenean. Euria entzun balu bezala. Eskarmenturik gabeko psikologoarentzat, bere estiloa markatzen zuen zerbait zen, adatsa belarri atzean gordetzeko keinua edo oinak jarleku ertzean jarri eta gona azpian gordetzea bezala. Ez zuen, behar zen bezala, psikiatra aditu batengana bideratu, eta animoa altxatzeko Prozac hartzeko asmoa azaldu zionean, ez zion burutik kendu. Ondo iritzi zion. Garaian oso modan zegoen eta errezetarik gabe ematen zuten Yoldiren botikan. Astakeria handia izan zen, zeren, geroago jakingo zuenez, fluoxetinak, azken finean, hegoak jarri baitzizkion, leihotik salto egin ahal izateko.

Astelehen batez egin zuen bere buruaz beste, egunik ohi-koenean karreran ikasi zuenez, baina pertsona gazte batentzat hain normala ez den orduan, goizeko hamarretan. Biharamunean jakin zuen, egunkariaren bidez. “21 urteko emakume gaztea hilik suertatu da Anoeta dorreko bederatzigarren solairutik jausita”, zioen izenburuak ezbeharren atalean, eta azpiko testu laburrak ez zuen askorik gehitzen, gertakizunaren eta hilotza jasotzearen orduaz eta Maite Arrese Franco izen-deiturei zegozkien inizialez aparte. Berria irakurritakoan, eskarmenturik

gabeko psikologo gazteari ondoeza egin zitzaion, ondoren eman dizkion zorabio sail luzearen lehena, oraindik pairatzen dituen, eta zeintzuen etiologiaz medikuek ez dakiten ezer. Lankideei deus esan gabe, Parisera ihes egin eta Montparnassen hilerrira ematen zuen hoteleko gela batean itxita egon zen harik eta Anari deitu eta honek itzultzeko konbentzitu zuen arte. Lanari utzi zion, bere burua nahiko jantzia ikusten ez zuelako eta, bulegotik bere gauzak jasotzera pasatu zenean, esan zioten suizidaren gurasoek etengabe ari zirela deitzen berarekin hitz egin nahian. Profesionaltasun falta aurpegiratu nahi ziotela pentsatu zuen berak eta alabaren heriotzaren errua egotzi, eta ihes egin zien. Denboraldi batera, aita hasi zitzaion etxeko erantzungailuan eduki bereko aldaera desberdinak zituzten mezuak uzten, bere telefono zenbakia gidan aurkitu zuela eta ikusi nahi zuela esaten, doinu tristean baino gehiago serioan, baina baita tristean ere, inolaz ere ez mehatxarian edozein kasutan; horrek, ordea, aurpegia ematen lagundu ordez, gehiago inhibitzen zuen oraindik. Errazago egingo zitzaiokeen errabiak hartutako aita mehatxatzaile bati aurre egitea, esateko ez zela bere errua alaba, ergela izateaz gain, zoroa bazen. Ez daki deialdi haiek zenbat iraun zuten, asteak bai, hilabeteak ere bai, sentsazioa du. Bihotza uz-kurtu egiten zitzaion telefonoak jotzen zuen bakoitzean eta kirkildu mezu triste haiek entzuten zituenean, aldaerarik gabe, beti modu berean hasten zirenak: “Maite Arreseren aita naiz”, eta ondoren, zehaztu egiten zuen gidan aurkitu zuela bere numeroa. Momentu bat iritsi zen damu izan zena lehendabiziko deia hartu ez zuelako, baina berandu zen jada erantzuteko ere. Mezuak tartekatuz joan ziren eta, bukatu zirenean, ia okerrago izan zen, harik eta ziurtasuna izan zuen arte ez zuela dei gehiago jasoko. Ez daki zalantzaldiak zenbat iraun zuen ere, asteak, hilabeteak ere bai akaso, eta haren guztiaren oroimena –neska

txakurrari “leihotik salto egingo dut, Txiki” iragartzen, aitaren ahots nekatua hitzordua eskatzen— bere laneko mahai gainean hauts bihurtu da eta ezina zaio noizbehinka hatza gainetik ez pasatzea hor jarraitzen duela egiaztatzeko.

Maite, erru baten izena, apenas minik eragiten diona jada, baina hor jarraitzen duena isilik, sor, eta aldiro ultzera zahar bat bezala ireki ohi dena.

Palan ari zen bikotearen txakurrak Tito du izena. “Orain etxera, Tito”, esan dio neskak giltza-sorta airean astinduz, eta animaliak eskailerak igo ditu aire etsituaz. Gizonak hirukotearen atzetik jotzen du, ez daki zergatik, oraintsu bainulariari segika egin duen bide beretik, lorategian zehar, eta ez daki zer egin ere txaleten aldera errepidea gurutzatzen ikusten dituenen. Nekea nabari du. Inurritze arin bat burezurraren oinarrian hasten dena, lokietara hedatzen zaiona liztor burrunba batekin batera, trafikoaren zarata galtzen den neurrian intentsuago. Ikusmena lanbrotzen zaio eta airean igeri sentitzen da. Ez da izutzen. Semaforoari heltzen dio lehendabiziko jarlekuraino iristera etsita. Ez lioke denborarik emango. Itxaron egiten du gertariak beti bezala iraungo duelakoan, ez daki zenbat, baina gutxi, hori da bere pertzepzioa eta konbentzitura dago gutxiago litzatekeela oraindik ordulariz neurtutako denboran. Hodei batetik bezala dakusana kamera geldian gertatzen dela iruditzen baitzaio.

Bere onera datorrenean eta trafikoaren zarata intentsitate osoan entzuterakoan, burura datorkio lehendabizi hotsa izan zela.

Glorietaz bestalde, taxi ilaran daudenetako bat hartzea erabakitzen du. “Egun on” esan bezain laster, taxilaria eguraldi aldaketaz hitz egiten hasten da. “Egun on diozu? Hamabost

egunetan ez dugu eguzkirik ikusi eta”. Astebururako eginak zeuden hotel erreserba erdiak bertan behera gelditu omen dira. Irratiko berria. Gizonak ez dio entzuten. Ondarreta atzean utzi eta, tunelean doazela, bainulariaren irudia uretatik ateratzen datorkio gogora, mardul, figura alegoriko horietako bat bezala, baina buruaren mugimendua delikatua izan da txanoa kentzerakoan eta adats laburra astintzerakoan gero, femeninoa oso. Beharbada, bainujantziaren beltzagatik zirudien kontrastez hain azal zurikoa, eta eguraldiagatik, ez oso aproposa bainurako. Horregatik ere, beharbada, irudipena du hondartzakoa baino eremu intimoago batean ikusi duela. Badaki ederra dela aurpegi, nahiz eta ez duen oso ondo ikusteko aukerarik izan, eta begi argiak dituela. Bere buruari galdetzen dio ezagutuko ote lukeen kalean gurutzatuko balu.

Taxilaria saiheska itzultzen da.

–Zer deritzozu? –galdetzen dio.

Gizonak ez daki zeri iritzi behar dion zer, eta “ze gauza!” erantzutera arriskatzen da, entzun ez duen gauza horrekin hunkitua bezala, baina ezta gehiegi ere, neurrian. Ohituta dago distrahituta harrapatzen dutela disimulatzen, eta normalean “ze gauza!” esaten du orduan, burua mugituz, baiezkoa eginez, orain egin duen bezala. Taxilariak atzerako ispilutik begiratu ondoren, isilik dirau une labur batez, eta, ondoren, hitz egiten jartzen da hirian eguraldi txarra egiten duenerako ez dagoela denbora pasako errekurtsorik; eta hitz egiten uzten dio, lasaituta berriro, beraren arreta faltaz ohartu ez delako. Umea balitz, eskolako psikologoak arreta defizit bat duela esango luke, baina hiperaktibitatearik gabe, hori bai. Alde onetik ikusita, esatea legoke abstrakziorako ahalmen handia duela, normalean gertatu ohi den bezala, interesatzen ez zaion gauzaz mintzo zaizkionean. Lehen esaldia entzuten duenean, mintzo zaion ahoaren

xehetasunen batek hartzen dio arreta: ezpainen formak, hortzeriak –zeinak hainbat esaten duen pertsonaz, bere egoera sozialaz, bizi moldeaz, eta abar–, eta, hortik aurrera, gogo hor zehar doakio mugarik gabeko espazioetan. Berezkoa du hori, baina bada ikasketa baten ondorio ere. Ume otzana izan zen, amarekin zaharrak eta gaixoak bisitatzera laguntzen ohitua, eta pertsona nagusien tertulietara, non ez zen ezer ere esaten bere edadeko mutiko batentzat gutxieneko interesik izan zezakeenik. Ez zitzaion inporta izaten meza, arrosario, bederatziurren eta beste ekitaldi liturgikoetara laguntzea ere, arrebari ez bezala, hura errebeldegoa baitzen eta ez zuen nahi izaten. Berez, amak joera mistikoren baten seinalea ikusi uste izan zuen Garibaiko jesuiten elizan bera geratzen zen moduan sumatuta, aldareko irudiei so, gauza guztietatik at, osoki bere baitan bildua, eta zuzendari espiritualari kontatu zion jakiteko ea apaiz izatera bideratu beharko zuen Konpainiaren seminarioren batean ingresatuz, baina hark ez zion ongi iritzi, jesuita jatorra zenez, kontenplazioaren baliagarritasunaz zalantzak zituelako nonbait eta konfiantza gehiago zuelako inteligentzian eta estudioan. Edo, beharbada, ez zion ihes egingo beste xehetasun batek, bere bildutasunak gutxi zuela mistikotik alegia. Bera izan zen eraginkorra amak fraide-barnetegian sartzeko erabakia hartu zuenean, *“para reforzar hábitos de orden, convivencia, trabajo y exigencia personal”*, duela egun batzuk amaren paper artean aurkitu zuen kolegioko triptiko batek zioen bezala. Egia dena da harrizko eraikin zahar eta izugarrian pasatu zituen hiru urteak kanpoko errealitateari ihes egiteko ahalmena garatzeko balio izan zutela, ez beste ezertarako, eta berez, momentu bat iritsi zitzaion non, handik aurrera, abstrakzioan egotea zen ohiko egoera. Nahiago zuen liburu baten aurrean ikasteko itxura egiten egon bere gauzetan pentsatzen, baita pentsatu gabe ere, patioan

jolasean baino. Klasean, noski, ez zen ezertaz enteratzen. Ezerk ez zion arretarik pizten, neurri batean tokatu zitzaizkion irakasleen espiritu pedagogiko falta eta ezjakintasunagatik, baina batez ere, txoritegian abstraituta egoteko lortu zuen trebeziagatik. Arreba, aitzitik, gogotsua zen, beti erne zegoena, interesatzen ez zitzaiona soportatzeko baliabiderik gabea. Horregatik, nahiz eta bazkalondoetatik eta nagusien bileretatik ihes egiten zuen –eta amari debozizko ohituretan laguntzeari uko egiten zion; lau urte gehiago izateak ere laguntzen zion horretan–, familiararen inguruko kontu ugari daki, orain berari, protagonistak desagertu direlarik, interesgarriak iruditzen zaizkionak, eta damu da bere garaian arreba gehiago jarri ez izanaz eta ez zuelako jakin-minik izan galderak egiteko, aitaren aldeko aitonari batez ere. Badu gogoan gerrako haren gertaeraren bat, zeinaz gehiago jakin nahiko lukeen, baina hainbat zehaztasun itxuraz txiki, fronteko nahiz erretaguardiako eguneroko bizimoduari zegozkionak, galdu ditu, garai batean liburuetan alferrik bilatu zituenak eta behin betiko berreskuraezinak direnak.

Taxilaria erabat jiratzen da atzeraka, oraingoan “zer deritzozu, e?” galdetzerakoan. Ez dirudi lehen aldiz egiten duenik eta gizonari ez zaio egokia iruditzen oraingoan “ze gauza!”, ares-tian bezala, errepikatzea eta egia esan dio, “ez dakit zer pentsatu!”, espero baitzuen disertazioak ez zuela zalantzarik gabeko erantzun zehatzik eskatzen, baina hala dirudi, zoritxarrez, berriro ere atzerako ispilutik begiratzen dionean bekoz kodun ikusten baitu. Beste erantzun bat behar zuen. San Martinera heldu diren arren, adiskidetzeko denbora izateko, Bretxaraino jarraitu dezan eskatzen dio nahiz eta jakin, Okendoko semaforoan, bere helmugatik bi pausora, itxaron beharra tokatuko zaiola eta lehenago iritsiko litzatekeela oinez.